

Alegia, 2020ko abenduaren 9an egindako bilera telematikoaren akta.

Zuzendaritza

Andu Martinez de Rituerto	X
Alizia Pildain	X
Alberto Letamendi	X

Udalaren ordezkaria

Arantxa Irazusta	X
------------------	---

Administrazio/langileen ordezkaria

Iban Bengoa	
-------------	--

Gurasoen ordezkariak (12)

Alegia-Aldaba

Silber Balerdi	
Agurtzane Balerdi	
Rosario Borrachero	X
Miriam Oyarzabal	
Amaia Jimenez	

Altzo

Jasone Armendariz	
-------------------	--

Amezketza-Bedaio

Olatz Balerdi	
Mari Karmen Beldarrain	
Arantzazu Delera	

Ikaztegieta-Baliarrain

Amaia Heriz	X
Idoia Apaolaza	

Orendain-Abalzisketa

Mikel Gulina Tirapu	X
---------------------	---

Ikasleen ordezkariak (3)

Sara Irastorza	
Iker Ropero	
Ander Ruiz	

Irakasleen ordezkariak (10)

Asun Prada	X
Txomin Arano	X
Koldo López	X
Gema Mujika	X
Garazi Munduate	
Ana Arakistain	X
Aitor Juaristi	X
Elixane Sarasola	X
Nekane Amondarain	
Iker Iasa	X

Bertaratutakoak Xz markatuta daude

1.- Aurreko aktaren balizko onartzea

Covid19a dela eta, pasa den urtean OOGko bilera “ofizial” bakarra egin genuen, ikasturte hasierakoa, hain zuzen. Bilera horretan hitz egindakoa bere garaian bidali zen. Ondoren, maiatzaldera, egutegia onartu genuen. Uztailan, OOGko gurasoekin elkartu nintzen urte bukaeraren berri emateko eta aurtengo ikasturterako egindako kontingentzia plana eta ikastetxearen antolakuntzaren berri emateko.

2.- Sarrera

Denok dakigun bezala, gizarte osoak egoera oso berezia bizi du eta honek eragin nabarmena izan du ikastetxearen antolakuntzan.

Egokitzapen fisikoak egin genituen uda partean (gela bat handitzeko tabike bat bota) eta ikasturtea hasterako antolakuntzari dagozkion egokitzapenak egin behar izan ditugu baita ere.

Obraren ondorioz, lau gela berri ditugu eta gela guztiak ordenagailua eta pantailarekin (hauetako gehienak arbel digitalak dira) hornitu ditugu. Une honetan, 11 ikasgela arruntaz gain, bikoizketa gela bana ditugu solairu bakoitzan (horietako bat liburutegia da), covid gela eta irakasleontzako mintegi berri bat sortu dugu, espazioetan horren pilatuta ez egoteko. Guztira, 11 gela arrunt, bi bikoizketa gela (hiru sukaldearekin), PT gela, informatika eta plastika gelak, laborategia, 7 bulego-mintegi (zuzendaritza, idazkaritza eta orientazioa barne) eta atezaintza.

Ikasturte hasiera honen balorazio postiboa egiten dugu. Aurreikusi zitekeena baino arazo gutxiago izan ditugu orain arte. Ikasle kutsatu gutxi izan ditugu eta hauek ez dute kutsaturik eragin bere ikaskideengan (geletan aireztapen egokia dugu, etengabe maskara jantzita egoten dira eta 1,5 metroko distantzia errespetatzen dugu). Irakasle kutsaturik ez dugu izan eta konfinatutako gutxi.

Ikasleak konfinatuak egon direnean, gehienetan meet bidez ikas saioetara konektatzeko aukera izan dute eta etxean egon diren bitartean jarraipena egin zaie (classroomen lan guztiak jaso dituzte).

Lehen ebaluazioko emaitzetan hobekuntza nabaria izan dugu pasa den urteko lehen ebaluazioko emaitzekin alderatuta.

3.- 202-21 ikasturterako planaren aurkezpena

Ikasturteko plan osoa ikastetxeko web orrian dago.

<https://www.aralar-bhi.net/urteko-plana>

Irakaslegoaren banaketa

- Gizarte: 2 oso +2/3
- Ingelesa: 3 oso +1/2
- Euskara: 3 oso +1/2
- Teknologia: oso 1 + 2/3
- Biologia: 2 oso.
- Fisika: oso 1 + 2/3
- Matematika: 3 oso + ½

- Gaztelania: 2 oso +2/3
- Gorputz Heziketa: 2 oso + 1/3
- Informatika: 5/6
- Plastika: 1/2
- Musika: 1/2
- Orientatzailea: oso 1.
- Pedagogia Terapeutikako irakasleak: 2 oso+ 1/3
- **Guztira: 34 pertsona (25 emakume + 9 gizon. Erljioa haintzat hartu gabe)**

Ikaslegoaren banaketa:

	Maila	Gela	Guztira
DBH	1	A- 19 (10♀) B- 18 (9♀) C- 18 (10♀)	55 ikasle
	2	A- 17 (8♀) B- 18 (8♀) C- 17 (6♀)	52 ikasle
	3	A- 24 (13♀) B- 25 (14♀)	49 ikasle
	4	A- 19 (10♀) B- 17 (10♀) C- 16 (5♀)	52 ikasle
Guztira		11 gela	208 (103♀) ikasle

Ikasturtea hasita zegoela, 1/2 irakasle mate eta fisikarako eta 1/2 euskara eta gaztelaniarako eskuratu genituen. Honi esker, DBH 3n matematikan 3 talde daude eta euskara, gazte eta fisikan, 3 ordutatik bietan baita ere.

Ordutegia

COVID19a dela eta aurten goizeko lan jardun jarraia dugu.

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1	8:30 – 9:23	8:30 – 9:23	8:30 – 9:23	8:30 – 9:23	8:30 – 9:23
2	9:23 – 10:16	9:23 – 10:16	9:23 – 10:16	9:23 – 10:16	9:23 – 10:16
Atsedena	10:16 – 10:37	10:16 – 10:37	10:16 – 10:37	10:16 – 10:37	10:16 – 10:37
3	10:37 – 11:30	10:37 – 11:30	10:37 – 11:30	10:37 – 11:30	10:37 – 11:30
4	11:30 – 12:23	11:30 – 12:23	11:30 – 12:23	11:30 – 12:23	11:30 – 12:23
Atsedena	12:23-12:44	12:23-12:44	12:23-12:44	12:23-12:44	12:23-12:44
5	12:44 – 13:37	12:44 – 13:37	12:44 – 13:37	12:44 – 13:37	12:44 – 13:37
6	13:37 – 14:30	13:37 – 14:30	13:37 – 14:30	13:37 – 14:30	13:37 – 14:30

Aurrebaluazio/ebaluazio saioak

1. ebaluazioa	Zailtasunak dituztenekin bilera (Udako lanak)	Irailak 30. Ikasle hauen egoera aztertzen da.
	Aurrebaluazioa	Urriak 13 eta 14.
	Ikasleen azterketak (2. ziklokoentzat)	Azaroaren 11tik 20ra.
	Ebaluazio bilerak	Azaroaren 23tik 26ra
	Gurasoekin bilerak	Abenduaren 22a bitartean (guztiekin bildu behar dugu).
2. ebaluazioa	Aurrebaluazioa	Urtarrilak 26 eta 27.
	Ikasleen azterketak (2. ziklokoentzat)	Martxoaren 3tik 12ra
	Ebaluazio bilerak	Martxoaren 15etik 17ra
	Gurasoekin bilerak	Martxoaren 26ra bitartean (beharren arabera)
	Aurreko ikasturtetako pendienteak	Maitzaren 12a.
3. ebaluazioa	Aurrebaluazioa	Maiatzaren 4ean eta 5ean
	Ikasleen azterketak (2. Ziklokoentzat)	Ekainaren 2tik 11ra
	Ebaluazio bilerak	Ekainaren 14tik 16ra
	Gurasoekin bilerak	Guztiekin kurtso amaieran
Ez ohikoa	Ekainaren 21, 22 eta 23	Ekainaren 24ean

Egutegia

* H.U.I.S *
DATA: 2020/07/09



ORR.: 1
ERREF.: pw49012

2020-2021KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: DBH

Ikastebeko kodea: 012951
Ikastebarearen izena: IES ARALAR BHI
Kurtsoa: 2020-2021
Udalerria: Alegia
Lurraldea: Gipuzkoa
Ikusk. Zonaldea: Donostia: Zona 2

IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

EGUNA	GOGEEZ	ARRATSALDEZ	BAL	ATS.
AL.	08:30-14:30		6	0:30
AS.	08:30-14:30		6	0:30
AZ.	08:30-14:30		6	0:30
OG.	08:30-14:30		6	0:30
OR.	08:30-14:30		6	0:30
TRI.	08:30-14:30		6	0:30

Guztira Eskola-egunak: 175
Guztira Klase-egunak: 175
Eskola-orduak guztira: 1050:00

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	18	Jardunaldi berezia	15
Jaleguna	15	Klase gabeko lektiboa	15	Oporraldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herr/jala	15	Inhaureria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

Lurralde Ordezkatitza honek ikastetxeak aurkeztu duen 2020-2021 ikasturterako eskola ordutegiaren eraldaketa onartzea erabaki du.
Donostia-San Sebastiánen, 2020ko ekainaren 29an

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIAK



Izpta.: GEMA GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA



IES ARALAR BHIko zuzendari jaun/andrea

Planaren Helburu Orokorrak

Ikasturte honetarako aurreikusten ditugun erronkak hauek dira:

1. COVID19ak sortutako egoera berriei ahalik eta hobetoen erantzutea.

Pasa den ikasturteaz geroztik bizi dugun pandemia dela eta, ikasturtea hasterako kontingentzia plana idatzita genuen eta oinarrizko dokumentu honi egoerak eskatu ahala egokitzapenak egiten joan gara. Plan hau egiteko, ondorengo dokumentuak erabili ditugu:

- Hezkuntza Sailaren protokoloa
- Ikasturte hasierako protokolo osagarria
- Lan arriskuen prebentziorako neurriak.
- Lasarteko Berritzeguneko ikastetxeentzat laguntza dokumentuak

Hauek dira, kontingentzia planean jaso eta definitu ditugun alderdiak:

- Higiene neurri orokorrak
- Ikastetxearen sarrera-irteerak.
- Jolas garaietako antolamendua.
- COVID kasuak sortuz gero jarduteko prozedura
- Zerbitzu osagarrien protokoloak zehaztu: jangela eta garraioa.
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta curriculuma egokitzeko argibideak zehaztu.
- Irakasleon arteko koordinazioa eta prestakuntza definitu.

2. Aniztasunari trataera ahalik eta hoberena eman eta eskola porrotaren intzidentzia gutxitu.

- Ikasketa-maila bakoitzeko funtsezko alderdiak eta gutxieneoak zehaztu.
- Konpetentzietan oinarritutako curriculumean sakondu.
- Hizkuntzetako, batez ere gaztelania eta ingeleseko, emaitzen gaineko hausnarketa bultzatu.

Ondorengo hauek dira Hezkuntza errefortzua eta laguntzak emateko ikastetxean erabiltzen ditugun irizpideak:

LHko tutoreek emandako informazioarekin eta Berritzeguneko aholkulariarekin adostutako erabakiekin, ikasleei hasiera frogak egiten zaizkie bere maila zein den ezagutzeko eta ahalik eta erantzun doituena emateko helburuarekin. Bestetik, Curriculumaren Norbanako Egokitzapenak dituzten ikasleak ditugu.

Ditugun baliabideen banaketa:

- ✓ Lehendabizi Heziketa Bereziko Mapan dauden ikasleen beharrei erantzungo zaie. Hau PTko irakasleak egiten dute batez ere. Kontuan hartu behar da, errefortzuko irakasleak direla eta ardura

nagusia dagokion irakaslearena dela. Pedagogia Terapeutikok irakasleen laguntzak.

Irakaslea	Maila
PT(1)	1.A: 2 saio Gaztelania 1 B: 2 saio Gaztelania 1.C 2 saio Gaztelania 2 A: 2 saio Matematika 2.B: 2 saio Matematika 2.C 2 saio Matematika
PT(2)	1.A: 4 saio (Euskara 2 Gaztelania 2) 1 B: 4. saio (Euskara 2 Gaztelania 2) 1.C 4 saio (Euskara 2 Gaztelania 2) 2 A: 4 saio (Euskara 2 Gaztelania 2) 2.B: 4 saio (Euskara 2 Gaztelania 2) 2.C 4 saio (Euskara 2 Gaztelania 2)
PT(3)	1.A: 2 saio Matematika 1.B: 2 saio Matematika 1.C: 2 saio Matematika

PT Irakasleak gelan sartzen direnez, zailtasunak dituzten gelako beste ikasleek, puntualki, laguntza jaso dezakete

- ✓ Ordu kredituaren arabera ahalik eta gela gehienetan errefortzuak ematen saiatzen gara, gelan bertan 2. Irakaslea sartuz. Aurten oso errefortzu ordu gutxi ditugu. Orain dela hilabete bat, COVID19a dela eta, irakasle bat gehiago esleitu digute. DBH 3n talde oso handiak ditugunez, bi lanaldi $\frac{1}{2}$ eskatu genituen, bat, euskara eta gaztelania eta bestea Matematika eta fisikan. Bi irakasle hauek, ikasgai horietan DBH 3n hirugarren taldea sortzeko erabili ditugu.
- ✓ **Hizkuntza Laguntzailea** (Irakurlea). Ingelesez mintzamina lantzeko astean 12 orduz arituko da. Ez dugu uste etorriko denik.
- Ikasleen aniztasunari trataera egokia emateko ditugun beste baliabideak:
 - ✓ **Eskola orduz kanpo: Bidelaguna programa**
Bidelaguna, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, eskola-laguntzako programa bat da. **(Eranskinetan zehazten dira helburuak)**
Astelehenetik ostegunera 15:15etatik 16:15ak arte.
Irakaslea: Gorka Díaz.
Eskolako koordinatzaileak: Alizia Pildain eta Iñaki Begiristain.
 - ✓ Aniztasunari aurre egiteko aurreikusitako beste neurri batzuk:
 - “Lan kooperatiboa” eta “flipped classroom” bezalako metodologiak sustatzen jarraitzea.
 - Golden 5 proiektuaren oinarritzko ikaspenak aplikatu.

3. **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) osatzen eta berrikusten jarraitu** eta Hizkuntz proiektua IHPan txertatzen jarraitu.

4. **Irakasleen prestakuntza sakondu:**

- Ikasketa-maila bakoitzeko funtsezko alderdiak eta gutxienekoak zehaztu.
- Konpetentzietan oinarritutako curriculumean sakondu.
- Metodologia egoera berrira egokitu. Saioak on-line emateko estrategiak hobetu.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazio integrala sustatzea.
- Digitalizazioan sakontzeko formakuntza.
- Bizikasi, Hezkidetz, Golden 5.
- Hizkuntzetako, batez ere gaztelania eta ingeleseko, emaitzen gaineko hausnarketa bultzatu.
- Tertulia literarioak.
- Mugikorraren gehiegizko erabileraren prebentzioa eta kontrola.

Hasiera batean, formakuntza egiteko, asteazken arratsaldea aurreikusita badugu ere, Covid 19 dela eta, zenbait eginbehar, mintegiak era autonomoan egingo dituzte (on-line edo presentzialki), beste batzuk berriz, ikastetxean bertan presentzialki egingo ditugu.

5. **Ikastetxearen digitalizazioa bultzatzen jarraitu.**

- Inikaren erabilera orokortu.
- Classroomaren erabilera orokortu.
- Ikasle guztiak ikastetxera ordenagailua ekar dezaten ahalegindu. Horretarako, chromebookak erosteko erraztasunak eman (Sare Hezkuntzako beka bideratu) eta ordenagailuak behar dituzten ikasleei Eskola 2.0koak dohako maileguan utzi.
- WIX plataforman Institutuko web orria mantendu eta eguneratzen jarraitu.
- Ikasleen konpetentzia irteera profil digitala sekuentziatu.

6. **Barne eta kanpo-eragileen parte-hartzea eta lankidetzan aritzea.** Lehen hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin harremanak eta koordinazioa sustatu. Udalekin harremanak zabaltu. Gurasoekin harremanak indartu.

- Ikasle zein familien parte-hartzea sustatzeko jarduerak martxan jarri.
- Eskualdeko ikastetxeekin dugun koordinazioa aztertu eta hobetzeko neurriak hartu:
 - Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin, urtean 5 edo 6 bilera egiten dira. Orientatzailea eta Koordinatzailea biltzen dira beraiekin. Urtero ikasleei jarraipena egiten zaie eta beste gai bat jorratzen da: konpetentzien atala.

- Batxilergoa (batik bat Orixekoekin). Mintegiak ikasgaietako programazioak bateratzeko harremanetan jarri, gurasoei Batxilergoaren ezaugarriak azaldu (hitzaldia) eta ikastetxea ezagutzeko bisita antolatu.
- Lanbide Heziketa (batik bat Tolosako GMBLH). Gurasoei hitzaldia eta bisita.
- Alegiako Udalekin hartu emana zuzena eta maiztasun handikoa da. Gainontzeko Udalekin hartu-emanak izaten hasi nahi genuke.

7. Komunitateko partaideon artean **hartu-eman goxoak sustatu** eta elkarbizitza positiboan sakondu.

- Bizikasi programa eskolan txertatu bere helburu nagusia ardatz hartuta:
“Ikastetxeak garapen pertsonal zein sozialerako ikasteko espazioa izatea, eta espazio horretan, eskola komunitateko kide guztiak ezagutzaren eta denboran iraungo duen konpromiso partekatuen bidez, espazio hori elkarbizitza positiborako eta jazarpen egoerekiko tolerantziarik izango ez duen testuinguru seguru bihurtzea.”
- Hezikidetzaren proiektua, orain elkarbizitza proiektu globalean txertatua.
- Giza eskubideen gaineko lanketa.
 - ✓ Adi-adian ekimena. Indarkeriaren biktimen lanketa eta testigantzak zuzenean jaso.

8. **Agenda 20/30:** “Ikastetxe jasagarria, herri jasagarria” gaia landuko da.

9. **Beste egitasmoak:**

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazio integrala sustatzea.
 - Barne (ikasleen kalifikazioak) zein kanpoko (Diagnosi ebaluazioa eta PISA) emaitzen azterketa eta honen ondorioz sortutako hobekuntza-planak martxan jartzea.
 - Ideia nagusia ondorengo hau da: ikasleak ebaluatzen ditugunean prozesu osoa ebaluatu behar dugu. Emaitzak guk espero bezalakoak ez badira, aldagai guztiak aztertu eta egoera nola bideratu eta hobetu dezakegun ikusi behar dugu. Helburuak lortzeko erabilitako materialak, metodologia eta hauen egokitasuna berrikusiko dugu alde batetik eta bestetik ikasle bakoitzaren jarduna, motibatua dagoen, lana egiten ote duen, eskatutakoa bere mailarako egokia den... aztertuko dugu.
- Ikasleak ingurua (patioa/futbol zelaia/frontoia) garbia mantendu dezaten proiektuarekin jarraitu.
- Materiala (testu liburuen eta irakurketa liburuen mailegua sustatu). Euskara lantzeko irakurketa liburuak erosi. Liburutegia antolatzen jarraitu. katalogo datu-basea sortu eta mantendu; egileka eta tituluko paperezko index-ak sortu eta euskal literaturako erosketak proposatu. Maileguak antolatu. Aspaldiko partez gela bat izango dugu horretarako.

- Hondakinen kudeaketa (atez atekoa ezarria dugunez, sailkapena ahalik eta hoberen egitea bultzatu).

Esperientziak, programak eta proiektuak

Izenburua edo gaia

NOLEGA

Oharrak

Antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, kontalaritza, Euskararen eguna, pasiloko lehiaketak...

Ikastetxeen arteko binakako loturak (Ikabil). Murgiako Institutuarekin elkartrukea.

Zehaztasun guztiak Nolega 2020-2021 ikasturterako - herri-ikastetxeak eskabidean.

Izenburua edo gaia

ELEANIZTASUNERANTZ. A MODALITATEA
Irakuketa Plana. Hizkuntzen trataera integratua.

Oharrak

2012-2013 ikasturtean HMH proiektuan sartu ginen eta ondorenean Eleaniztasun proiektuan aurtengo ikasturterarte. 2012 ikasturtean ere Finlandiako Taivallahti koulu ikastetxearekin harremanetan jarri eta urtez urte elkar trukatzeko lanetan ari gara. Horrela, pasa den ikasturtean gure 4. mailako ikasleak Finlandian izan ziren. Pasa den ikasturtean ere MURGIako institutuko, DBH-3 ikasleen elkar trukea egin genuen, euskara ardatz hartu eta indartzeko. Batez ere murgiarrek ikus dezaten euskara egunerokko bizitzan erabiltzen dela eta gureak jabetu daitezen beraien arduraz. Gainera, Euskal Girotze Barnetegiaian parte hartu genuen, gure inguru soziolinguistikoa izan den aldaketa kontuan hartuz eta ikasleek lehen mailatik jabetu daitezen eskolako komunikazio hizkuntza euskara dela. Hizkuntza Proiektua ere burutu genuen 2018-2022 eperako eta urtez urteko plangintza garatzen ari gara.

HELBURUA: Hizkuntza proiektuan jasota dagoen irakurketa plana garatzea eta burutzea.

Izenburua edo gaia

ULIBARRI PROGRAMA. HIZKUNTZA NORMALKUNTZA.

Oharrak

Hainbat jarduera planifikatzen dira hizkuntza normalkuntza indartzeko, hala nola, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin lotutako erabaki bateratuak, ikasleekin egindako jarduera ludikoak (lehiaketak sortu eta dinamizatu...)

Zehaztasun guztiak Ulibarri programa 2020-2021 ikasturteko Plana. Herri-ikastetxeak eskabidean.

Izenburua edo gaia

BIDELAGUNA PROIEKTUA

Oharrak

Eskola-laguntzako programa bat da. Programa honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Eskola-orduetatik kanpo ikasle taldeari orientazio pertsonalizatua eskaintzea.
- Denbora antolatzen lagundu.
- Oinarrizko gaitasunak garatzen lagundu, lanean irmotasunak eta ikas-estrategiek duten garrantzia irakatsiz.
- Irakurketarako ohitura bultzatu.
- Arlo instrumentaletan ezagupenak eta trebeziak sendotu.
- LH eta DBH arteko trantsizioa leuntzen lagundu.
- Etorkinei lagundu.
- Ikaslea taldean eta ikastetxean integratzen lagundu.
- Bere aukera akademikoak areagotzeko ikaslearen autoestima indartu

IRAKASLEA: Gorka Díaz

ESKOLAKO KOORDINATZAILEAK: Alizia Pildain eta Iñaki Begiristain

Izenburua edo gaia

AGENDA 20/30: Aurtengo gaia, "Eskola jasangarria herri jasangarrian".

Oharrak *Observaciones*

Bailarako beste herri eta ikastetxeekin batera gauzatzen den ingurumen proiektua da. Helburua, ikasleria eta hezkuntza komunitate osoa garapen iraunkorrerako prestatu eta hezteka da, ikastetxean eta herrian parte-hartze aktiboa sustatuz.

IKASTETXEKO ARDURADUNA: Asun Prada

Izenburua edo gaia

IKASTETXEAREN EBAKUAZIOA

Oharrak

Egungo egoeran ez da ebakuazio fisikoa egingo. Oraindik jakinarazpen zehatza egin ez badigute ere, simulazio moduko bat izango da.

Ikastetxeko arduraduna: Andu Martinez de Rituerto

Izenburua edo gaia

INGELESA IKASTEN LAGUNTZEKO HIZKUNTZA LAGUNTZAILEA (IRAKURLEA)

Oharrak

Irakasle bat izendatu bazuten ere ez da inor etorri.

Ikastetxeko Urteko planaren eranskinetan ondorengo programen informazio zabaldua duzue:

- Bidelaguna programa.
- Orientazio eta Tutoretza Plana.
- Hezkidetzeta Plana.
- Ikasleen Harrera eta agurra.
- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua 2018-2022

Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko bideak: bilerak, elkarrizketak, bisitak, informeak, aldizkariak, web gunea, posta elektronikoa.

Gurasoekiko harremanak

- Nota txostenak: 3 txosten ematen ditugu ikasturtean zehar, hiruhilabete bukaeran gurasoak informatzeko eta bere seme-alaben ikasketen jarraipena egiteko.
- Ikasturte hasieran, irailean edo urrian, tutoreek kurtsoka bere ikasleen gurasoekin bilera orokorra egingo dute (kurtsoko gainontzeko irakasleak egotea interesgarria litzateke). Landuko dituzten gaiak batez ere gurasoei banatuko zaien koadernoan jasota daude (ikusitako aipaturako koadernoak).
- Lehen hiruhilekoan zehar tutorea (edo kurtsoko norbait) guraso edo guraso-ikasle bakoitzarekin egongo da.
- Bigarren hiruhilekoan gurasoei beharren arabera deituko zaie.
- Azken hiruhilekoan tutorea (edo kurtsoko norbait) guraso edota guraso eta ikaslearekin egongo da.
- Orientazio akademikorako bilerak.
 - Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoekin. Amezketak, Ikaztegieta, Abaltzisketa, Altzo eta Alegiako eskolak
 - 3 DBHko gurasoekin.
 - 4 DBHko ikasle eta gurasoekin bakarka
- Beharrezkoa ikusten den guztietan gurasoei deituko zaie. Gurasok, edozein irakaslearekin biltzeko eskubidea dute.
- OOGko batzordeetan ere gurasoek bere presentzia eta eginkizunak dituzte.
- Bestaldetik, GURASO ESKOLA ere izango dugu ondorengo gaiekin:

GAIA	NOIZ
Heziketa afektibo-sexuala	Lehenengo hiruhilekoan ??
Genero indarkeria	Lehenengo hiruhilekoan ??
Internet eta mugikorren arriskuak	Otsailan
Ikasturtean zehar sor daitekeen beste gairen bat	Edozein unean

Informazioa helerazteko bideak

- **Posta arruntaz.** Bide hau geroz eta gutxiago erabiliko dugu. Posta elektronikoa edo inika erabiltzen ez duten familiekin erabiltzen dugu. Jokabide desegokien jakinazpenak bidaltzeko kasu guztietan, bide hau erabiltzen dugu.
- **Ikasleen bidez:** Ikasleei eskura emandako oharrak. Bide hau geroz eta gutxiago erabiltzen dugu
- **Agendaren bidez** tutorearekin edo beste irakasleekin harremanetan jartzeko.
- **Inika.** Une honetan familiekin komunikazteko dgun bide nagusia da. Notak, hutsegiteak, mezuak, portaera desegokien jakinarazpenak, familiekin hartuemanak, irakasle on artekoak, koaderno digitala...
- **Posta elektronikoa:** Oraindik erabiltzen jarraituko dugu zenbait komunikazioetarako.
- **Web orria:** <https://www.aralar-bhi.net/>

Jarduera Osagarrien Programa eta Eskola Kirola

Hainbat jarduera osagarri egiten saiatuko gara, baino gehienak, momentuz, bertan behera gelditu dira. Hauek egingo dira:

- Heziketa afektibo sexualeko modulua eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren prebentzioa. DBH 2, 3 eta 4.
- Erlauntzetara bisita, DBH 4.
- Tolosaldea eta Orixe Zentroak bisitatu DBH 4.
- Internet eta mugikorren arriskuak DBH osoa.
- NIZU programa (Gureak Elkarte). DBH 1 eta 2.
- Adi-adian ekimena. DBH 4.

Eskola kirola programa ere bertan behera gelditu da momentuz.

Jangela

Aurten txanda bakarra dugu. 14:30etatik 15:05ak arte.

Garraiatuak eta bekadunak lehentasuna izan dute eta ikasturte hasieran garraioa berrantolatu genuen ikasle gutxiago gelditzenko jangelan. 65 ikasle eta 2 begirale ditugu.

Garraioa

Amezketak (itzulera 14:30)

San Martin Goian 08:00

Amezketak 08:08

Ugarte 08:11

Abaltzisketak (itzulera 15:05)

8:05

Baliarrain-Ikaztegieta-Altzo autobusa (Itzulera Altzo 14:30/Ikaztegieta-Baliarrain 15:05)

Baliarrain 7:55

Ikaztegieta 08:03

Altzo 08:15

Orendain (Itzulera 15:05)

Plaza 8:00

Bedaioko taxia (Itzulera 14:30)

Bedaio: 7:43 Abalzisketa/Aldaba

Ekonomia.

Finantza baliabideen banaketaren irizpideak

Beharrak kontutan harturik eta sail bakoitzeko oreka mantenduz

⚡ **Ekonomia-kudeaketaren arduraduna/k**

Alberto Letamendi eta Iban Bengoa

⚡ **Sarrera iturriak**

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza saila)

⚡ **Sarreraren aurrikuspena Ingresos previstos**

Funtzaionamendurako: 24.182,65€

Ekipamendua: 3.029€

Hezkuntza Esperientziak: 1172€

Bidelaguna: 4.200€

Testu Liburuak (programa solidarioa): 10.700€

Energiaren Euskal Erakundea: 1.086,74€

⚡ **Kontrol sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa**

Autogestioa daukagu, baina urtean hiru aldiz hezkuntza sailari kontuen berri ematen zaio.

⚡ **Jarraipena, bilera kopurua, datak.**

Fakturen ordainketak astearteetan egiten dira. Bilerak, berriz, kurtsoan zehar lau bat egiten dira (irailean, abenduan, apirilean eta ekainean).

⚡ **Egin behar diren txostenak, edukia, nori informatu.**

Zuzendaritzari, Organo Gorenari eta Hezkuntza sailari.

Gastuen Aurrekontua

		Aurreikusia	Gastatutakoa	ALDEA
22200	Eraikinen konponketa	500	0	500
22301	Instalazio teknikoaren konponketa	500	0	500
22400	Altzarien konponketa	17.000	7.357,96	9.642,04
22400	CV-COVID 19	2.000	42,34	1.957,66
23300	Garraioak (peonajes, portes)	200	0	200
23500	Banku Gastuak	100	0	100
23755	Irakaskuntzako Materiala	20.000		
23755.00	Orokorra	11.500	796,06	10.703,94
23755.03	Zientziak	500	0	500
23755.04	Teknologia	3.500	393,49	3.106,51
23755.05	Informatika	500	0	500
23755.06	Kirolak	1500	617,27	882,73
23755.09	Plastika-artisautza	1500	720,68	779,32
23755.10	Musika	500	0	500
23755.12	Orientzioa/Laguntza	500	0	500
23761	Farmaziako Produktuak	200	25,39	174,61
23771	Tresnak eta Erremintak	300	8,60	291,40
23799	Beste hornidura batzuk	12.400	931,54	11.468,46
23801	Bulegoko Materiala	10.000	2.978,78	7.021,22
	CV- COVID 19	6.000	1.125,89	4.874,11
23802	Prentsa, aldizkariak,	3.000	410,50	2.589,50
23803	Ikastetxeen Material Curricularra	10.700	5.201,23	5.498,77
23821	Segurtasuna	100	0	100
23831	Lokomozio eta egonaldiko gastuak	4.000	255,89	3.744,11
23851	Komunikazio telefoniko, informatiko,...	1.700	466,93	1.233,07
23855	Posta komunikazioak	600	0	600
23882	Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	15.000	3.447,84	11.552,16
23886	Eskola-garraioa (ikasle irteerak)	9.000	48,40	8.951,60
23899	Bestelako zerbitzuak	14.578,66	3.892,01	10.686,65
KAP. VI	Ekipamendua	2.700	0	2.700
62321	Lanabesak-Tresneria	100	0	100
62401	Altzariak	100	0	100
62501	Informazio prozesuetarako ekipoak	2.500	0	2.500
	GUZTIRA	130.578,66	21.167,48	109.411,18

5. Erreagu-galderak

- Guraso Elkartetik, OOGko guraso berrien datuak ahalik eta lasterren bidaltzeko eskatu dute.

Idazkaria

Alberto Letamendi

Zuzendaria

Andu Martinez de Rituerto



B H I I N S T I T U T U A

Aralar bidea, z/g.
Tfnua: 943 65 00 78
20260 - ALEGIA
012951aa@hezuntza.net
www.aralarbhi.blogspot.com